

Zuzenbide
Zibileko
Berbategia

Vocabulario
de Derecho
Civil

 **Deusto**

Publicaciones
Argitalpenak

Zuzenbide Zibileko
Berbategia

Vocabulario de
Derecho Civil

Zuzenbide Zibileko Berbategia

Gaztelania-Euskara / Euskara-Gaztelania

Vocabulario de Derecho Civil

Castellano-Euskera / Euskera-Castellano

Esther Urrutia / Andres Urrutia / Cesar Gallastegi

Zuzenbide Fakultateko irakasleak-DU

Profesores de la Facultad de Derecho-UD

Arantza Etxebarria

Terminologoa-DU

Terminóloga-UD

2010

Deustuko Unibertsitatea

Universidad de Deusto

Bilbo-Bilbao

Minor Bilduma, 7. zk. Serie minor, vol. 7

Liburu hau Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailaren laguntzaz argitaratu da.



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Lan honen berregintza, banaketa, komunikazio publiko edo moldaketaren bat egiteko, ezinbestekoa da egileen baimena izatea, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik. Lan honen atalen bat fotokopiatu edo eskaneatu behar izanez gero, jo eza-zu CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

© Egileak: Arantza Etxebarria, Cesar Gallastegi,
Andres Urrutia, Esther Urrutia

© Euskal Gaien Institutua. Deustuko Unibertsitatea
1. postakutxa-48080 Bilbo
www.deusto.es
publicaciones@deusto.es

ISBN: 978-84-9830-380-3

Aurkibidea

Índice

Atarikoa	11
Ezaugarri teknikoak	15
Zuzenbide Zibileko Berbategia	23
Gaztelania-Euskara	23
Euskara-Gaztelania	51

Prólogo	13
Características técnicas	19
Vocabulario de Derecho Civil	23
Castellano-Euskera	23
Euskera-Castellano	51

Atarikoa

Hona hemen Deustuko Unibertsitateak argitaratzen duen *Minor Bilduma* izenekoaren zazpigarren uztia. Bilduma horretan, lege testuak, berbategi juridikoak, eta zuzenbidea euskaraz aztertu eta lantzeko beste-lako lanak jasotzen dira.

Formatu txikian egindako argitalpen hauek 2004an abiatu ziren, Espainiako 1978ko Konstituzioa kaleratuta. Liburu hartan, gaztelaniazko testu ofizialarekin batera, Euskaltzaindiaren euskarazko bertsio berria jaso zen. Urte berean, konstituzio zuzenbideko eta zientzia politikoko oinarrizko hitz eta kontzeptuak biltzen zituen euskara/gaztelania hiztegi txiki bat argitaratu zen.

Lan-ildo horri jarraipena emateko asmoarekin, irakurleak esku artean du zuzenbideko adarretatik bati buruzko berbategi elebidun berria, hain zuzen ere, zuzenbide zibilari buruzkoa.

Bilduma honetako beste berbategi baten aurkezpenean esan genuen bezala, hiztegi txiki hauek egiteko orduan, mota guztietako irakurleak izan ditugu gogoan. Batetik, zuzenbideko ikaslea, unibertsitateko eskoletan diziplinaren berezko terminologia barneratu behar duena. Bestetik, lan hau interesgarria izan daiteke, gure ustez, euskaraz eta gaztelaniaz lan egiten duen profesionalarentzat, legelari izan nahiz administrazio publikoko funtzionarioa izan, baita itzultzaile juridikoarentzat ere, alegia, eguneroko lanean espezialitateko hitzak bi hizkuntza ofizialetan

erabili behar dituenarentzat. Era berean, berbategi hau kazetaritzako profesionalei eta, oro har, euskarazko irakurle guztiei zuzenduta dago, liburuaren gaiak eguneroko bizimoduan berebiziko garrantzia baitu.

Gure asmoa horiei guztiei tresna baliagarri eta zehatza eskaintzea izan da. Horretarako, zailtasunak ekar ditzaketen alde teknikoak —kasurako, kategoria gramatikalak— eta laburtzapenak, neurri handi batean bederen, saihestu dira. Zuzenbideko adar zehatz bateko terminologiaren inguruan ideiak eta konponbideak ematen dituen oinarritzko berbategia egitea izan da gure helburua.

Argitalpen hau terminologia juridikoari eta teknologia berriei buruzko ikerketa bati lotuta dago. Lan horretan, Bizaiko Foru Aldundiaren Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren ezinbesteko laguntza izan dugu eta, horrenbestez, gure esker ona adierazi nahi diogu.

Amaitzeko, hiztegitxo hau irakurlearentzat nola edo hala erabilgarria izan dadin nahiko genuke. Gure asmoa hori baino ez da izan.

Egileak

Prólogo

Aparece ahora el séptimo volumen de la *Serie Minor*, una colección que reúne textos legales, vocabularios jurídicos y otras obras de interés para el estudio y desarrollo del Derecho en la lengua vasca.

Esta serie de publicaciones en pequeño formato se inició en 2004 con la edición de la Constitución española, que recogía, además del texto en castellano, la nueva versión en euskera proporcionada por la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia. Ese mismo año vio la luz un pequeño diccionario euskera/castellano, compuesto por los términos y conceptos básicos del Derecho Constitucional y la Ciencia Política.

Continuando con esa línea de trabajo, tiene el lector en sus manos un nuevo vocabulario bilingüe dedicado a una de las ramas del derecho, en este caso, el Derecho Civil.

Como señalábamos en la presentación de un volumen anterior, a la hora de confeccionar estos pequeños diccionarios, hemos pensado en un público amplio. Por un lado, nos dirigimos al estudiante de Derecho, que en sus años de universidad debe adquirir y utilizar la terminología propia de la disciplina. Por otro, pensamos que esta obra puede ser interesante para cualquier profesional que desarrolle su actividad de forma bilingüe —sea un jurista, sea un funcionario de la Administración Pública—, así como para el traductor jurídico, que en su tra-

bajo diario necesita manejar los términos de la especialidad en las dos lenguas oficiales. Finalmente, no olvidamos a los profesionales del periodismo y, en general, a todos los ciudadanos y ciudadanas, en atención a la proximidad y relevancia del tema que nos ocupa.

Nuestra intención ha sido proporcionar a todos ellos una herramienta práctica y concisa. Por ello se han evitado, en la medida de lo posible, los tecnicismos —por ejemplo, las categorías gramaticales— y las abreviaturas que dificulten su utilización. Se trata sencillamente de proporcionar un vocabulario básico que aporte ideas y soluciones a la terminología en uno de los campos del Derecho.

Los autores

Ezaugarri teknikoak

Hiztegiaren edukia

Hiztegi honek Espainiako zuzenbide zibilaren hitz eta esamolde garrantzitsuenak biltzen ditu. Ez da euskal foru zuzenbide zibila sartu, hain zuzen ere, uztailaren 1eko 3/1992 Legeak jasotzen duena. Sarreak 1.133 dira guztira hiztegiaren lehenengo zatian (gaztelania-euskara), eta 1.358, bigarren zatian (euskara-gaztelania).

Hiztegi Batua

Berbategi honetako hitzen bat Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan*¹ ageri direnekin bat datorrenean, letra etzanez² jaso da eta lan horretan idatzita agertzen den moduan, bertako laburdura-zeinuak jaso gabe. Hitz horien eta bestelakoen gaztelaniazko ordainak, ordea, berbategi honetako egileek finkatu dituzte.

¹ <http://www.euskaltzaindia.net/hiztegiatua>

² Irakurleak kontuan hartu behar du letra etzanez agertzen direla beste hizkuntzeta-ko hitzak ere, hain zuzen ere, latinezko berbak.

Hitz elkartuak

Euskarazko hitz elkartuetan marra erabiltzea aukerazkoa izan deanean, joera marrarik ez erabiltzea izan da; beraz, irakurleak hautatu ahal izango du marra idatzi edo ez.

Bestelakoa da Hiztegi Batutik hartutako berbekin izan dugun jokabidea. Halakoetan, Euskaltzaindiaren testuan dagoen idaztankera errespetatu da, eta, hori dela eta, hautazko gidoia agertuko da, modu honetara adierazita: (-).

Iturriak

Euskarazko hitzei dagokienez, Internetek eskaintzen dizkigun baliabide nagusiak erabili dira, hala nola, *Euskalterm-Terminologia Banku Publikoa*³ eta Bizkaiko Foru Aldundiaren *Hiztegi Terminologikoa*⁴. Halaber, aipagarria da Euskal Herriko Notario Elkargo Txit Prestuak oraintsu bere webgunean jarri duen *Hiztegia: Notariotzako Terminoen eta Euskal Autonomia Erkidegoko foru-zuzenbide zibileko terminoen zerrenda*⁵. Horiez gain, testu hauen hustuketa egin da:

- a) CAPILLA, F.; LÓPEZ, A. M.; ROCA, E.; VALPUESTA, M.^a R.; MONTÉS, V. L.: *Oinordetza Zuzenbidea*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1997.
- b) *Kode Zibila/Código Civil*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2007, 2. arg.
- c) *Lege Zibilak: ondasun higiezinak/Leyes Civiles: bienes inmuebles*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2007, 2. arg.
- d) LOPEZ, A.; MONTES, V. L. (koord.): *Zuzenbide Zibila. Zati Orokorra*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2002, 3. arg.

³ http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice_e.htm

⁴ <http://bfaapp.bizkaia.net/apps/danok/HiztegiTerminologikoa/euskara/euHiztegiSarrera.asp>

⁵ <http://glosario.vasco.notariado.org>

- e) MONTÉS PENADÉS, V. L.; PRATS ALBENTOSA, L.; DOMÍNGUEZ PLATAS, J.; LÓPEZ BELTRÁN DE HEREDIA, C.; BLASCO GASCÓ, F.; CAPILLA RONCERO, F.; ROCA I TRÍAS, E.; CLEMENTE MEORO, M.; LÓPEZ Y LÓPEZ, M.; ESTRUCH ESTRUCH, J.; VALPUESTA FERNÁNDEZ, M.^a R.: *Eskubide errealak eta ondasun higiezinaren erre-gistroari buruzko zuzenbidea*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2005, 2. arg.
- f) VALPUESTA FERNÁNDEZ, M.^a R. (koord.): *Betebehar eta kontra-tuei buruzko zuzenbidea*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1996.

Erdarazko berben kasuan, hurrengoak erabili dira:

- a) ARCO DEL, M.; BLANCO, A. (koord.): *Diccionario Básico Jurídico*, Comares, Granada, 1991, 3. arg.
- b) DEL ARCO TORRES, M.: *Diccionario básico jurídico*, Comares, Granada, 2009, 7. arg.
- c) DEL ARCO TORRES, M.; PONS GONZALEZ, M.: *Diccionario de Derecho Civil*, Aranzadi, Zizur Txikia, 1984, liburuki 2.
- d) *Diccionario Espasa Jurídico*, Espasa, Madril, 2001.
- e) *Diccionario Jurídico El Derecho*, Grupo editorial El Derecho, Madril, 2009.
- f) FONSECA-HERRERO, J. I.; IGLESIAS, M. J.: *Diccionario Jurídico*, Colex, Madril, 2010, 4. arg.
- g) GENERALITAT DE CATALUNYA: *Diccionari de Dret Civil*, Departament de Justícia, Bartzelona, 2005.
- h) RIBÓ DURÁN, L.: *Diccionario de Derecho*, Bosch, Madril, 1995, 2. arg.
- i) *Terminología Notarial*, Termcat, Bartzelona, 2004.
- j) UNIVERSITAT DE BARCELONA: *Vocabulari de Dret Civil*, Bartzelona, 1995.

Características técnicas

Contenido del diccionario

Este diccionario recoge los términos y expresiones fundamentales de Derecho civil utilizados en el ordenamiento jurídico español. No se ha incluido el Derecho civil foral vasco, contenido fundamentalmente en la Ley 3/1992, de 1 de julio, de Derecho Civil Foral del País Vasco. En total, este vocabulario consta de 1.133 entradas en la primera parte (castellano-euskera), y 1.358 en la segunda (euskera-castellano).

Hiztegi Batua

Aquellos vocablos en lengua vasca presentes en este vocabulario que, a su vez, aparecen en el *Hiztegi Batua*¹ de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia son recogidos aquí en cursiva² y escritos tal y como constan en la publicación citada, sin incluir las abreviaturas

¹ <http://www.euskaltzaindia.net/hiztegiatua>

² Téngase en cuenta que también aparecen en letra cursiva las palabras provenientes de un idioma distinto al de referencia, concretamente, los términos en latín.

que allí les acompañan. Sus equivalencias castellanas son obra de los autores de este Diccionario.

Palabras compuestas

En cuanto al uso del guión en las palabras compuestas en euskera cuando su utilización es opcional, la tendencia ha sido suprimirlo, quedando en manos del lector su inclusión. Distinto es el caso de las expresiones tomadas del *Hiztegi Batua*, pues en tales casos, se ha respetado la redacción original dada por Euskaltzaindia.

Fuentes

En lo referente a los términos en euskera, se han utilizado los recursos que ofrece Internet, tales como *Euskalterm Banco Terminológico Público Vasco*³ y el *Diccionario Terminológico* de la Diputación Foral de Bizkaia⁴, y el recientemente creado *Glosario de Términos Notariales y de Derecho civil foral del País Vasco*, del Ilustre Colegio Notarial del País Vasco⁵. Además, se han tenido en cuenta los siguientes textos:

- a) CAPILLA, F.; LÓPEZ, A. M.; ROCA, E.; VALPUESTA, M.^a R.; MONTÉS, V. L.: *Oinordetza Zuzenbidea*, Universidad de Deusto, 1997.
- b) *Kode Zibila/Código Civil*, Universidad de Deusto, Bilbao, 2004.
- c) *Lege Zibilak: ondasun higiezinak/Leyes Civiles: bienes inmuebles*, Universidad de Deusto, Bilbao, 2007, 2.^a ed.
- d) LOPEZ, A.; MONTES, V. L. (coord.): *Zuzenbide Zibila. Zati Orokorra*, Universidad de Deusto, Bilbao, 2002, 3.^a ed.

³ http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice_e.htm

⁴ <http://bfaapp.bizkaia.net/apps/danok/HiztegiTerminologikoa/euskara/euHiztegiSarrera>.

asp

⁵ <http://glosario.vasco.notariado.org>

- e) MONTÉS PENADÉS, V. L.; PRATS ALBENTOSA, L.; DOMÍNGUEZ PLATAS, J.; LÓPEZ BELTRÁN DE HEREDIA, C.; BLASCO GASCÓ, F.; CAPILLA RONCERO, F.; ROCA I TRÍAS, E.; CLEMENTE MEORO, M.; LÓPEZ Y LÓPEZ, M.; ESTRUCH ESTRUCH, J.; VALPUESTA FERNÁNDEZ, M.^a R.: *Eskubide errealak eta ondasun higiezinaren erre-gistroari buruzko zuzenbidea*, Universidad de Deusto, Bilbao, 2005, 2.^a ed.
- f) VALPUESTA FERNÁNDEZ, M.^a R. (coord.): *Betebehar eta kontra-tuei buruzko zuzenbidea*, Universidad de Deusto, Bilbao, 1996.

Para las referencias en castellano, se han examinado las siguientes obras:

- a) ARCO DEL, M.; BLANCO, A. (coord.): *Diccionario Básico Jurídico*, Comares, Granada, 1991, 3.^a ed.
- b) DEL ARCO TORRES, M.: *Diccionario básico jurídico*, Comares, Granada, 2009, 7.^a ed.
- c) DEL ARCO TORRES, M., PONS GONZALEZ, M.: *Diccionario de Derecho Civil*, Aranzadi, Cizur Menor, 1984, 2 vols.
- d) *Diccionario Espasa Jurídico*, Espasa, Madrid, 2001.
- e) *Diccionario Jurídico El Derecho*, Grupo editorial El Derecho, Madrid, 2009.
- f) FONSECA-HERRERO, J. I.; IGLESIAS, M. J.: *Diccionario Jurídico*, Colex, Madrid, 2010, 4.^a ed.
- g) GENERALITAT DE CATALUNYA: *Diccionari de Dret Civil*, Departament de Justícia, Barcelona, 2005.
- h) RIBÓ DURÁN, L.: *Diccionario de Derecho*, Bosch, Madrid, 1995, 2.^a ed.
- i) *Terminología Notarial*, Termcat, Barcelona, 2004.
- j) UNIVERSITAT DE BARCELONA: *Vocabulari de Dret Civil*, Barcelona, 1995.

**Zuzenbide Zibileko
Berbategia**

Gaztelania-Euskara

**Vocabulario de
Derecho Civil**

Castellano-Euskera

A

abandono bertan behera uzte
abandono de hogar etxea bertan behera uzte
abintestato abintestato
abuso de derecho eskubideaz abusatze
accesión akzesio
acceso a la propiedad jabetza eskuratzeko, jabetza lortze
accesorio *erantsi*
acción 1. *akzio* 2. *ekintza*
acción de deslinde mugaketa akzio, mugatze akzio
acción de divorcio dibortzio akzio
acción de petición de herencia herentzia eskatzeko akzio, jarauntsia eskatzeko akzio
acción de reclamación de filiación seme-alabatasuna erreklamatzeko akzio
acción de suplemento de legítima senipartearen osagarria eskatzeko akzio
acción declarativa de dominio jaberaria adierazteko akzio
acción directa zuzeneko akzio
acción negatoria ukatze akzio
acción pauliana paulotar akzio
acción posesoria edukitze akzio
acción publiciana publiziotar akzio
acción redhibitoria tratua hausteko akzio
acción reivindicatoria erreibindikazio akzio
acción revocatoria ezeztapen akzio
acción subrogatoria subrogazio akzio

aceptación a beneficio de inventario inbentario onuraren arabera onartze
aceptación de herencia herentzia onartze, jarauntsia onartze
aceptación de poder ahalordea onartze
aceptación pura y simple de herencia herentzia huts eta soilik onartze, jarauntsia huts eta soilik onartze
acogimiento harrera
acreedor *hartzekodun*
acta de depósito gordailutze akta
acta de notificación jakinarazpen akta
acta de notoriedad nabaritasun akta
acta de presencia bertaratzeko akta
acta de referencia aipamen akta, aipatzeko akta
acta de requerimiento agindei akta
acta de sorteo zozketa akta
acta notarial notario akta
activo hereditario herentziaren aktibito
acto de última voluntad azken nahia-
ren egintza
acto ilícito civil egintza zibil ez-zilegi
acto jurídico egintza juridiko
actos concluyentes egintza erabakigarriak
actos de administración administrazio egintzak
actos de conservación artatze egintzak
actos de disposición xedatze egintzak
actos de emulación emulazio egintzak

actos inscribibles egintza inskribagarriak, inskribatzeko moduko egintzak

actos propios norberaren egintzak

acuerdo *akordio, erabaki, hitzarmen*

adjudicación adjudikatze, *adjudikazio*

administración administratze, *administrazio*

administrador *administratzaile*

adopción adoptatze, *adopzio, hartze*

adoptado *adoptatu*, adopziopeko

adoptante adopzio hartzaile

adquirente *eskuratzaile*

adquisición eskuraketa, *eskuratze*

adquisición a non domino *a non domino* eskuratze

adquisición de la herencia herentzia eskuratze, jarauntsia eskuratze

adquisición de nacionalidad nazio-tasuna eskuratze

adveración del testamento testamentua egiaztatze

afinidad ezkontza ahaidetasun, ezkontza senidetasun

agregación eransketa, eranste

agregación de fincas finken arteko eransketa

ajuar ostilamendu

albacea albacea

albacea particular banakako albacea

albacea universal albacea unibertsal

alimentista mantenu hartzaile

alimentos *mantenu*

alquiler *aloger*

alteración del estado civil egoera zibila aldatze

amojonamiento zedarriak jartze

amonestación *zentzarazpen, zentzarazte*

amortización amortizatze, *amortizazio*

ampliación de hipoteca hipoteka zabaltze, hipotekaren zabalkuntza

analogía *analogia*

anotación preventiva aurreneurritko idatzohar

antefirma sinadura aurreko

anticresis antikresi

antijurídico zuzenbidearen aurkako

anulabilidad deuseztagarritasun

aparcería apartzeria

apertura de sucesión oinordetza irekitze

apertura de testamento testamentua irekitze

aplazamiento de pago ordainketa geroratze

aplicación analógica analogiaz aplikatze

apoderado *ahaldun*

apoderamiento ahalduntze, ahaldutzea emate

apuesta *apustu*

arbitraje tartekaritza

árbitro tartekari

archivo de protocolos protokoloen agiritegi

arras *erresak*

arras penitenciales zigor erresak

arrendador *errentatzaile*

arrendamiento errentamendu

arrendamiento de cosas gauzen errentamendu
arrendamiento de industria industria errentamendu
arrendamiento de obra obra errentamendu
arrendamiento de servicios zerbitzuen errentamendu
arrendamiento de temporada aldiari aldiko errentamendu, urtaro-ko errentamendu
arrendamiento financiero finantza errentamendu
arrendamiento parciarior apartzeria errentamendu
arrendamiento rústico landa errentamendu
arrendamiento urbano hiri errentamendu
arrendatario *errentari*
ascendiente *aurreko*
asentimiento *baiezko*
asiento *idazkun*
asiento de presentación aurkezte idazkun
asociación *elkarte*
asunción de deuda zorra bereganatze
ausencia *absentzia*
autocontratación autokontratazio, nork bere buruarekin kontratatze
autocontrato autokontratu
autonomía de la voluntad borondatearen autonomia
autor *egile*
autotutela autotutoretza
aval *abal*
avalado *abaldu*

avalista abal emaila
avalúo baloratzeko, *balorazio*
avulsión erauzpen

B

beneficiario *onuradun*
beneficio de deliberar hausnarketa onura
beneficio de división zatiketa onura
beneficio de excusión eskusio onura
beneficio de inventario inbentario onura
beneficio de mayor edad adin nagusitasunaren onura
beneficio del plazo epearen onura
bien *ondasun*
bienes colacionables ondasun kolazionagarriak
bienes comunales auzo ondasunak
bienes dotales ezkonsaripeko ondasunak
bienes gananciales irabazpidezko ondasunak
bienes inmateriales ondasun ez-materialak
bienes inmuebles ondasun higiezinak
bienes materiales ondasun materialak
bienes mostrencos jaberik gabeko ondasunak
bienes muebles ondasun higigarriak
bienes no troncales ondasun ez-tronkalak
bienes parafernales ezkonsariaz besteko ondasunak

bienes privativos bakarreko ondasunak, ondasun pribatiboak
bienes raíces onibarrak
bienes relictos kausatzaileak utzitako ondasunak
bienes reservables ondasun erreserbagarriak
bienes troncales ondasun tronkalak
bilateral *aldebiko*
búnubo bigarrenez ezkondu den(a)
buen padre de familia familiako guraso on
buena fe onuste

C

cabeza de familia familiaburu
cabida luze-zabal, *zabalera*
caducidad *iraungitze*
caducidad de anotación preventiva aurreneurritzko idatzoharra iraungitze
caducidad de asiento registral erregistroko idazkuna iraungitze
caducidad de testamento olografo testamentu olografoa iraungitze
cálculo de la legítima senipartea kalkulatzeko
calificación del contrato kontratua kalifikatze, kontratuaren kalifikazio
calificación registral erregistroko kalifikazio
cancelación ezerezte, kitapen, kitatze
cancelación de asiento registral erregistroko idazkuna ezerezte

canon *kanon*
capacidad civil gaitasun zibil
capacidad contractual kontratatzeko gaitasun
capacidad de obrar jarduteko gaitasun
capacidad de testar testamentua egiteko gaitasun
capacidad jurídica gaitasun juridiko
capacidad para suceder oinordeko izateko gaitasun
capitulaciones matrimoniales ezkontzako itun
carga *zama*
cargas del matrimonio ezkontzaren zamak
cargas registrales erregistroko zamak
carta de naturaleza herritartze agiri
carta de pago *ordainagiri*
caso fortuito *ezusteko*
caución juratoria zin-eginezko kauzio
caudal hereditario herentziako ondasunak, jarauntsiko ondasunak
caudal relicto kausatzaileak utzitako ondasunak
causa *arrazoi, auzi, kari*
causa del contrato kontratuaren kari
causa ilícita arrazoi ez-zilegi
causa justa arrazoi zuzen
causahabiente kausadun
causante kausatzaile
cautela kautela
cedente lagatzaile
censatario zentsu hartzaile

- censo** *errola, zentsu*
- censo consignativo** zainpeketa zentsu
- censo enfiteútico** enfiteusi zentsu, zentsu enfiteutiko
- censo reservativo** erreserba zentsu
- consualista** zentsu emaila
- certificación** *ziurtagiri*
- certificación de dominio** jabari ziurtagiri
- certificación de obra** obra ziurtagiri
- cesión** lagapen, lagatze
- cesión de bienes** ondasunak lagatze, ondasunen lagapen
- cesión de contrato** kontratua lagatze, kontratuaren lagapen
- cesión de crédito hipotecario** hipoteka kreditua lagatze, hipoteka kredituaren lagapen
- cesión de crédito litigioso** kreditu auzigaia lagatze, kreditu auzigaia-
ren lagapen
- cesión de créditos** kredituak lagatze, kredituen lagapen
- cesión de vivienda** etxebizitza lagatze, etxebizitzaren lagapen
- cesionario** lagapen hartzaile
- cierre registral** erregistro itxiera, erregistroa ixte
- citación de remate** erremate zitazio, errematerako zitazio
- cláusula** *klausula*
- coarrendador** beste norbaitekin errentatzailea den(a), errentatzailekide
- cobro de lo indebido** zor ez dena kobratze
- codeudor** beste norbaitekin zordun den(a), zordunkide
- codificación** kodegintza
- código civil** kode zibil
- cofiador** beste norbaitekin fidantza ematen duen(a)
- coheredero** beste norbaitekin jaraunse den(a), jaraunskide
- colación** kolazio
- colación de bienes** ondasunak kolazionatze, ondasunen kolazio
- colateral** alboko
- colegatario** beste norbaitekin legatu hartzaile den(a), legatukide
- colégio notarial** notario elkargo
- colindante** *mugakide*
- comisario testamentario** testamentu komisario
- comitente** komisio emaila
- comodante** komodatugile
- comodatario** komodatudun
- comodato** komodatu
- comparecencia notarial** notarioaren aurrean agertze
- compensación** konpentsazio, konpentsatze
- compilación** konpilazio
- comprador** *erosle*
- compraventa salerosketa**
- compraventa con pacto de retrac-
to** atzera eskuratzeko itunarekin egindako salerosketa
- compraventa con reserva de do-
minio** jabari erreserbadun salerosketa
- compraventa de cosa futura** bihar-etziko gauzaren salerosketa, gero-ko gauzaren salerosketa
- compraventa de finca hipoteca-
da** finka hipotekatuaren saleros-

keta, hipotekatutako finkaren salerosketa

compraventa de herencia herentziaren salerosketa, jarauntsiaren salerosketa

compromiso *konpromiso*

cómputo *zenbaketa*, zenbatze

cómputo de plazos epeak zenbatze, epeen zenbaketa

comunero *erkide*

comunidad de bienes ondasun erkidego

comunidad de pastos bazka erkidego

comunidad de propietarios jabeen erkidego

comunidad en mano común guztien esku dagoen erkidego

comunidad hereditaria herentziako erkidego, jarauntsiko erkidego

comunidad por cuotas kuota bidezko erkidego

concebido *ernaldu*, ernaldutako

concurrencia de créditos kredituak pilatze, kredituen pilatze

concurrencia de retractos atzera-
-eskuratzeak pilatze

concurrido konkurtsopeko

curso de acreedores hartzekodunen konkurtsu

condición *baldintza*, *izate*

condición positiva baldintza positibo

condición resolutoria baldintza suntsiarazle

condición suspensiva baldintza etengarri

condiciones casuales ausazko baldintzak

condiciones generales de la contratación kontratatzeko baldintza orokorrak

condiciones ilícitas baldintza ez-zilegiak

condiciones imposibles ezinezko baldintzak

condiciones inmorales moralaren aurkako baldintzak

condiciones mixtas baldintza mistoak

condiciones potestativas nahibada-
ko baldintzak

condominio jabarikidetasun

condómino jabarikide

condonación *barkamen*, *barkatze*

condueño *jabekide*

confirmación *baieztapen*, *baieztatze*

conflicto *gatazka*

conflicto de competencia eskumen gatazka

conflicto de leyes lege gatazka

confusión de derechos eskubideak bateratze

conmoriencia aldi berean hiltze

consanguinidad odol ahaidetasun, odol bidezko senitasun, *odolkidetasun*

consentimiento *adostasun*

consentimiento contractual kontratu adostasun

consentimiento matrimonial ezkontza adostasun

conservación de la nacionalidad naziotasunari euste

consignación zainpean uzte

consolidación *bateratze*

consorte *ezkontide*

- contador partidior** kontulari bana-tzaile
- contraprestación** kontraprestazio
- contratación entre ausentes** absenteen arteko kontratazio
- contratista** kontratari
- contrato** *kontratu*
- contrato aleatorio** ausazko kontratu
- contrato atípico** kontratu atipiko, zuzenbide tipoetatik kanpoko kontratu
- contrato con facultad de subrogación** subrogaziorako ahalmena duen kontratu
- contrato consensual** adostasuneko kontratu
- contrato de adhesión** atxikimendu kontratu
- contrato de arrendamiento** errentamendu kontratu
- contrato de comodato** komodatu kontratu
- contrato de compromiso** konpromiso kontratu
- contrato de depósito** gordailutze kontratu
- contrato de edición** argitaratze kontratu
- contrato de fianza** fidantza kontratu
- contrato de hospedaje** ostatu kontratu
- contrato de integración** integrazio kontratu
- contrato de obra** obra kontratu
- contrato de opción** aukera kontratu
- contrato de seguro** aseguru kontratu
- contrato declarativo** adierazpene-ko kontratu
- contrato en favor de tercero** hirugarrenaren aldeko kontratu, hirugarrenarentzako kontratu
- contrato en perjuicio de tercero** hirugarrenaren kalterako kontratu
- contrato estimatorio** zenbatespen kontratu
- contrato formal** kontratu formal
- contrato indirecto** zeharkako kontratu
- contrato normado** kontratu arautu
- contrato normativo** kontratu arauemaile
- contrato preliminar** alde zurretiko kontratu
- contrato preliminar de arbitraje** alde zurretiko tartekaritza kontratu
- contrato real** kontratu erreal
- contrato simulado** itxurazko kontratu
- contrato sucesorio** oinordetza kontratu
- contrato típico** kontratu tipiko
- contratos fiduciarios** fiduzia kontratuak, kontratu fiduziarioak
- convalidación** baliozkotze
- convalidación matrimonial** ezkontza baliozkotze
- convencional** hitzarmenezko, *ohiko*
- convenio** *hitzarmen*
- convenio de quita y espera** kita eta itxaroteko hitzarmen
- convenio regulador** hitzarmen arauemaile
- conversión** *bihurketa, bihurtze*

convivencia conyugal ezkontideak
elkarrekin bititze, ezkontza bizi-
kidadetasun

cónyuge *ezkontide*

copartícipe *partaide*

copia *kopia*

copia auténtica kopia kauto

copia autorizada kopia eskuetsi

copia notarial notario kopia

copia simple kopia soil

coposeedor beste norbaitekin eduki-
tzaile den(a), kidedukitzaile

coposición kidedukitza

copropiedad *jabekidetasun*

copropietario *jabekide*

corretaje *artekaritza*

cosa inmueble gauza higiezin

cosa mueble gauza higigarri

costumbre *ohitura*

cotitularidad titularkidetasun

cousufructo gozamenkidetza

crédito *kreditu*

crédito hipotecario hipoteka kreditu

crédito litigioso kreditu auzigai

crédito privilegiado kreditu pribile-
giatu, *kreditu pribilegiadun*

crédito refaccionario errefakzio
kreditu

criatura abortiva abortukin

cuaderno particional banaketa agiri

cuasi contrato kuasikontratu

cuasi posesión kuasiedukitza

cuasi usufructo kuasigozamen

culpa civil erru zibil

culpa in contrahendo *in contrahen-
do* erru

culpa in eligendo *in eligiendo* erru

culpa in vigilando *in vigilando* erru

culpa leve erru arin

cumplimiento betepen, *betetze*

**cumplimiento de las obligacio-
nes** betebeharrak betetze, bete-
beharren betepen

cumplimiento específico zehatz-
-mehatz betetze

cumplimiento por equivalente ba-
liokidearekin betetze

cuota *kuota*

**cuota de participación en propie-
dad horizontal** jabetza horizon-
taleko partaidetza kuota

cuota viudal alargun kuota

curador kuradore

curatela kuradoretza

custodia *zaintza*

D

dación de fe fede emate

dación en pago ordainean emate

dación para pago ordaintzeko emate

daño emergente sortutako gaitz

daño moral kalte moral

daños y perjuicios *kalte-galerak*

débito zordunketa, zorduntze

declaración de ausencia absentzia
adierazpen

declaración de fallecimiento herio-
tza adierazpen

declaración de herederos jaraunsle
adierazpen

declaración de incapacidad ezgai-
tasun adierazpen

declaración de obra nueva obra
berriaren adierazpen

- declaración de voluntad** borondate aitorpen
- defecto** *akats*
- defecto oculto** ezkutuko akats
- defensor judicial** defendatzaile judicial, epai defendatzaile
- delación** delazio, *salaketa*
- delación de la tutela** tutoretzarako delazio
- delación hereditaria** herentziako delazio, jarauntsiko delazio
- demora** *atzerapen, atzeratze*
- denegación de inscripción** inskripzioa ukatze, inskripzioari ezetza emate
- depositante** gordailugile
- depositario** gordailuzain
- depósito** *gordailu*
- depósito irregular** gordailu irregular
- depósito necesario** nahitaezko gordailu
- derecho accesorio** eskubide erantsi
- derecho civil** zuzenbide zibil
- derecho común** zuzenbide erkide
- derecho consuetudinario** ohiturazko zuzenbide
- derecho de acrecer** gehiagotzeko eskubide
- derecho de anticresis** antikresi eskubide
- derecho de censo** zentsu eskubide
- derecho de crédito** kreditu eskubide
- derecho de disfrute** lupertzeko eskubide
- derecho de familia** familia zuzenbide
- derecho de hipoteca** hipoteka eskubide
- derecho de la personalidad** nortasunaren eskubide
- derecho de opción** aukera eskubide
- derecho de prenda** bahi eskubide
- derecho de propiedad** jabetza eskubide
- derecho de repetición** errepetizio eskubide
- derecho de representación** ordezkapen eskubide
- derecho de retención** atxikitze eskubide
- derecho de retorno** itzultze eskubide
- derecho de retracto** atzera eskuratzeko eskubide
- derecho de reversión** lehengoratzeko eskubide
- derecho de servidumbre** zortasun eskubide
- derecho de sucesiones** oinordetza zuzenbide
- derecho de superficie** azalera eskubide
- derecho de tanteo** eroslehtasun eskubide
- derecho de transmisión** eskualdatzeko eskubide
- derecho de uso** erabiltzeko eskubide
- derecho de usufructo** gozamen eskubide
- derecho de visita** bisita eskubide
- derecho de vuelo** lurgain eskubide
- derecho hereditario** herentzia eskubide, jarauntsi eskubide

derecho personal eskubide pertsonal
derecho personalísimo bere-berezkoko eskubide
derecho potestativo nahibadako eskubide
derecho real eskubide erreal
derecho subjetivo zuzenbide objektibo
derechohabiente *eskubidedun*
derogación *indargabetze*
desahucio *botatze*, utzarazte
desamparo babesgabezia, babesik ez izate, babesik gabe uzte
descendiente *ondorengo*
desheredación jaraunsgabetze
desistimiento atzera egite
deslinde y amojonamiento mugatze eta mugarriak jartze
detención ukantza
deuda *zor*
deuda alimenticia mantenu zor
deuda de dinero diru zor
deuda de valor balio zor
deuda pecuniaria diruzko zor
deudor *zordun*
devaluación balio galera, balio galtze
día cierto egun zehatz
día hábil egun baliodun
día natural egutegiko egun
diligencia *arreta, diligentzia*
diligente *arretatsu*
Dirección General de los Registros y del Notariado Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusi
disenso *desadostasun*
dispensa lekapen, lekatze

dispensa de impedimentos matrimoniales ezkontza eragozpenak lekatze, ezkontza eragozpenen lekapen
disposición de última voluntad azken nahiaren xedapen
división de fincas finkak zatitze, finken zatiketa
división de herencia herentzia zatitze, herentziaren zatiketa, jarauntsia zatitze, jarauntsiaren zatiketa
división de la cosa común gauza erkidea zatitze, gauza erkidearen zatiketa
divorcio *dibortzio*
doble inmatriculación immatrikulazio bikoitz
doble nacionalidad naziotasun bikoitz
doble venta salmenta bikoitz
documento *agiri*
documento privado agiri pribatu
documento público agiri publiko
dolo dolo
dolo civil dolo zibil
domicilio *egoitza*
domicilio conyugal ezkontideen egoitza
dominio jabari
dominio directo zuzeneko jabari
dominio útil jabari erabilgarri
donación *dohaintza*
donación dispositiva dohaintza xedatzaile
donación encubierta dohaintza ez-kutu, ezkutuko dohaintza
donación sponsalicia ezkon-hitzezkoko dohaintza

donación modal modudun dohaintza
donación *mortis causa mortis causa* dohaintza
donación por razón de matrimonio ezkontzaren ondoriozko dohaintza
donación remuneratoria ordain gisa emandako dohaintza
donante dohaintza emaile
donatario dohaintza hartzaile
dote *ezkonsari*

E

edad *adin*
edicto *ediktu*
efecto constitutivo ondore eratzaille
efecto privativo ondore pribatibo
efecto resolutorio ondore suntsiarazle
efecto suspensivo etete ondore, ondore etengarri
ejecución de obra obra burutze
elemento común osagai erkide
elemento privativo bakarreko osagai, osagai pribatibo
emancipación emantzipatze, *emantzipazio*
embargo enbargatze, *enbargo*
enajenación *besterentze*
enfiteusis enfiteusi
enfiteuta enfiteusidun
enriquecimiento injusto bidegabe aberaste
equidad *ekitate*
error *oker*
escritura pública eskritura publiko

esponsales *ezkon-hitzak*
estado civil egoera zibil
estatuto personal estatutu pertsonal
estipulación hizpaketa
estipulación en favor de tercero hirugarrenaren aldeko hizpaketa
estirpe *leinu*
evicción ebikzio
exceso de cabida egiazko luze-zabaleraren erregistrokoa baino handiago izate
expediente de adopción adopzio espediente
expediente de dominio jabari espediente
expediente matrimonial ezkontza espediente
exposición *azalpen, azaltze*
extranjero *atzeritar*

F

facultad jurídica ahalmen juridiko
falsedad *faltsukeria, faltsutze*
familia *familia*
fe pública registral erregistroko fede publiko
feto *fetu*
fiador fidantza emaile
fianza fidantza
fideicomisario fideikomisodun
fideicomitente fideikomisogile
fiduciario fiduziario
filiación seme-alabatasun
filiación adoptiva adopzio bidezko seme-alabatasun

filiación extramatrimonial ezkontzaz kanpoko seme-alabatasun
filiación matrimonial ezkontzako seme-alabatasun
finca finka
finca registral erregistroko finka
firma electrónica sinadura elektronikoko
folio registral erregistroko folio
fraude *iruzur*, maula
fraude de ley lege maula
frutos *fruituak*
frutos civiles fruitu zibilak
frutos industriales fruitu industrialak, industria fruituak
frutos naturales fruitu naturalak, natura fruituak
fuentes de derecho zuzenbidearen iturriak
fuerza mayor *ezinbeste*
fundación *fundazio*
fundo *funts*

G

garantía *berme*
garantía del crédito kredituaren berme
garantía personal berme pertsonal
garantía real berme erreal
gasto *gastu*
gasto de puro lujo o recreo luxuzko edo atsegin hutsezko gastu
gasto necesario nahitaezko gastu
gasto útil gastu erabilgarri
gestión de negocios ajenos inoren negozioak kudeatze

gestor *kudeatzaile*
grado *gradu, maila*
graduación de créditos kredituak mailakatzeko
gravamen *karga*
guarda *zaintza*
guarda de hecho egitatezko zaintza

H

haber hereditario herentziako hartzeko, jarauntsiko hartzeko
habilitación de edad adin gehikuntza
hallazgo *aurkikuntza, aurkitze*
hecho fortuito ezinbesteko egitate, ustekabeko egitate
hecho jurídico egitate juridiko
heredero *jaraunsle*
heredero abintestato abintestato jaraunsle
heredero forzoso nahitaezko jaraunsle
heredero testatario testamentuzko jaraunsle
herencia *herentzia, jarauntsi*
herencia yacente herentzia onartugabe, jarauntsi onartugabe
hija *alaba*
hijo *seme*
hijo adoptivo adopziozko seme edo alaba
hijos e hijas *seme-alabak*
hipoteca *hipoteka*
hipoteca inmobiliaria ondasun higiezinaren gaineko hipoteka
hipoteca mobiliaria ondasun higigarrien gaineko hipoteka

I

ignorancia de ley legea ez jakite
impedimento matrimonial ezkon-
 tzeko eragozpen
imprescriptible preskribaezin
impugnación aurkaratze
imputación de pagos ordainketak
 egozte, ordainketen egozketa
incapacidad *ezgaitasun*
incapacitación ezgaiteta, ezgaitze
incapacitado *ezgaitu*
incapaz *ezgai*
**incumplimiento de las obligacio-
 nes** betebeharrak ez betetze
indemnización *kalte-ordain*
indignidad ezduintasun
indignidad para suceder oinordeko
 izateko ezduintasun
indivisible *zatiezin*
indivisión zatiezintasun
ineficacia eragingabetasun, eragin-
 garritasunik eza
inexactitud registral erregistroaren
 zehaztugabetasun
inexistencia existentzia eza, izate-
 gabekotasun
ingratitud *eskergabekeria*
inhabilitación desgaituntza
inmatriculación immatrikulatze,
 immatrikulazio
innovación *berrikuntza*
inquinilo *maizter*
inscripción inskribatze, *inskripzio*
insolvencia kaudimengabezia
institución de heredero jaraunse
 izendapen, jaraunsele izendatze
instrumento público agerkai publiko

intangibilidad de la legítima seni-
 partea ukitzeko ezintasun, senipar-
 tearen ukiezintasun
interés 1. *interes* 2. *korritu*
interpelación interpelazio, jabel-
 dura
interpretación interpretatze, *inter-
 pretazio*
**interpretación de las normas jurí-
 dicas** arau juridikoak interpreta-
 tze, arau juridikoen interpretazio
**interpretación de los contra-
 tos** kontratuak interpretatze, kon-
 tratuen interpretazio
interpretación del testamento tes-
 tamentua interpretatze, testamen-
 tuaren interpretazio
interrupción de la prescripción
